



BARREN

TUKI KOM



Txarrenean, onena

Osasun gida

**aldaz**
horts klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 271/12
**ainhoa**
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

Jeku
eder
horts klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Erparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com
RPS 173/18

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoak
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Eibar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizar1@yahoo.com
615 715 404

Osasun gida

Badatoz santanak eta sanbartolomeak!

BARRENen publizitatea jartzeko:

943 744 112

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



San Pedro jai bete-beteak izan dituzte asteburuan Idotorben



San Pedro jaiak ospatu dituzte asteburuan Idotorbe auzoan, eta auzoko jai batzordekoek eskerrak eman dizkiete Idotorbera igo diren herritarrei, bai eta lanean jardun diren guztiei ere. Zapatuan izan zuten egun handia, San Pedro eguna, eta meza nagusia eta prozesioa egin zituzten. Lehia-ketek eta demek ere izan dute lekua, baina, egitarauan. Mus txapelketa Xabier Loiolak eta Edu Sanzek irabazi zuten, eta Julian eta Jose Loiola bikotea eta Luis Kortaberria-Mancisidor bikoteak egin zuten bigarren eta hirugarren. Domekan, berriz, idi probak jokatu zituzten eta Azkoitiko Isidro Erreitegiak irabazi zuen San Pedro Saria, Trinitate jaietan Uztarri Motzeko txapelketa irabazi zuen berak. Juanjo Etxeberriaren idiek egin zuten bigarren markarik onena eta Sorarteren idi-parea sailkatu zen hirugarren. Bola joko txapelketa, berriz, Imanol Osorok irabazi zuen, Iñigo Loiola eta Agustín Irustaren aurretik. Bi sari ere zozketatu zituzten: janariz eta edariz betetako gurdia 1.255 zenbakiaren jabearentzat izan da (ordezko zenbakia: 6.043) eta bonoa, berriz, 4.372 zenbakiaren jabeak jasoko du (ordezko zenbakia: 4.797).

3.104 da Kalamuak azokan zozketatutako zenbaki sariduna

Ekaineko azken zapatuko azokan hegaztiak izan ziren protagonista, Urruzuno baserriko hainbat hegazti espezie atera zituztelako Kalebarren plazara. Gainera, Atxutxiamaika aisialdi taldekoek gidatuta, haurrek eskulanak egin zituzten hegaztien lumekin. Txosna, berriz, Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkartekoek kudeatu zuten. Txosnan gazta bat zozketatu zuten eta 3.104 zenbakia izan zen zenbaki saritua (Ordezkoa: 0741). Sari emaleek kalamua@googlegroups.com helbidera idazteko eskatu diote zenbaki horren jabeari. Era berean, Kalamuatik eskerrak eman dizkiete guraso boluntario guztiei, bai eta eskolari berari ere ikastetxean lantzen dituzten proiektuak kalera atzeratzeagatik. Era berean, Debemeneko langileei, Armueta harategiari, Sahatzu Harategiari eta Burgoa Somoza arraindegari ere esker bereziak helarazi dizkiete.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Ander Soraluze, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Pablo Acuña-ren gorpua Nikaraguara bidean da

Pablo Acuña-ren gorpuari azken agurra egin zioten astelehenean Mugica beilatokian. Maiatzaren 11n hil zuen la-bankadaz Acuña herrikide batek, eta geroztik, Donostiako Auzitegi Medikuntzako Institutuan izan dute haren hilotza, harik eta DNA probaren emaitzak izan arte. Astelehenean, enbalsamatu eta Almeriara eramatekoa zuten autoz eta handik Nikaraguara, sorterrira. Elgoibarko Beilatokian errezatu zion errespontsua Benantzio Otaegi Elgoibarko parrokoak, eta senideek grabatuta, zuzenean jarraitu ahal izan zuten Nikaragutatik gurasoek eta arrebetako batek. Elgoibarko agur-ekitaldira hogeita hamarren bat senide batu ziren. Acuña-ren gorpua sorterriratzeko 4.000 bat euro batu dituzte se-



nide eta lagunek eta eskerrak eman dizkiete Humanitatea eta Euskadiko Nikaragua elkarteei eta lagundu dieten elgoibartar guztiei. Gorpua sorterriratzeko gastuak 5.000 euro baino gehiagokoak izan dira.

Errepide istripua gertatu zen barixakuan Trenbide kalean



Auto batek eta moto batek aurrez aurre jo zuten joan zen barixakuan Trenbide kalean. Ubitarte kale-tik irteten ari zen auto baten eta Trenbide kalean gora zetorren moto baten arteko ezbeharrak izan zen. Larrialdi zerbitzuetakoak eta udaltzainak berehala gerturatu ziren ezbeharrak gertatu zen lekura eta moto gidaria ohatilera igo eta ospitalera eraman zuten larrialdi zerbitzuetakoek. Lerro hauek idazterako, baina, jaso zuen sendagiria.

Sanferminetako entzierroak pantaila handian emango ditu Udalak

Iruñeko San Fermin jaietako entzierroak zuzenean eta pantaila handian emango ditu Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan emango dituzte, uztailaren 8tik 12ra bitartean, 8:00etan.

Espetxe Araudia aplikatuta, Sebas Etxaniz preso elgoibartarrak kalean behar lukeela gogorarazi zuten zapatuan Giza Eskubideen plazan egin zuten ekitaldian

Sebas Etxaniz preso elgoibartarrari eskubidez dago-kiona emateko eskatu zuten zapatuan Elgoibarren egin zuten ekitaldian. Sebas Etxanizek 75 urte ditu eta bigarren graduan dago preso Villabonako (Asturias) kartzelan. Hirugarren gradua eta baldintzapeko askatasuna eskatu izan dute haren abokatuak, baina eskatu bestetan ukatu izan diete. Zapatuko ekitaldian Uxue Alberdi eta Arkaitz Estiballes bertsolariek parte hartu zuten, eta bukaeran talde argazkia atera zuten ekitaldira batutakoek.



Protesten barruan zahar etxeetako grebalariak oinez etorri ziren Eibartik Elgoibarrera

Gipuzkoako adinekoen egoitzetako eta eguneko zentroetako langileak greban daude, eta horren barruan, Zaintza Martxa egin zuten joan zen astean, eskualdeka. Debabarrenekoa Eibartik Elgoibarrera egin zuten. Untzaga plazatik abiatu ziren oinez, eta 634 errepidetik iritsi ziren Elgoibarrera. Maalatik sartu ziren herrira, eta Kalegoen plazan amaitu zuten protesta. Kalitatezko zaintza eredia aldarrikatzeko, eta aurrera daramaten "borroka" ezagutzera emateko helburuarekin egin zuten martxa. Lan hitzarmenaren aldeko borrokan jarraitzeko asmoa dute Gipuzkoako zahar etxeetako beharginek uztailaren 12ra bitartean. Bideoa: barren.eus



Greba mugagabea hasi dute Mendaroko Ospitaleko mantenuko langileek

Tecman enpresak dauka Mendaroko Ospitaleko mantenuaren ardura, eta bertako langileek greba mugagabea hasi dute aste honetan. LAB sindikatuak jakinarazi duenez, lan hitzarmen duin bat eskatzen dute, eta enpresak hitzarmena betetzea. Orain dela bi hilabete hartu zuen Tecman enpresak ospitaleko mantenuaren ardura, eta hainbat borrokaren ostean lan egutegia eta oporrak zehaztea lortu dutela jakinarazi dute, baina sindikatutik esan dute hori ez dela nahikoa. Irtenbide duin bat eta euren eskubideak errespetatzea eskatzen dute langileek.

1.750 gramoko tomatea batu dute Zeleta baserrian



1.750 gramoko tomate alea batu du Anselmo Salazar Molik Zeleta baserrian. 30 urte baino gehiago daramatza tomateak ereiten, eta ibilbide horretan batu duen bigarren tomate handiena izan da hau (2015ean 1.800 gramoko beste bat jaso zuen). Aurten tomate denboraldia oso ona izaten ari dela aipatu du Molik, eta kilotik gorako tomate ale bat baino gehiago jaso dituela kontatu du. Maiatza bukaeratik urte bukaerara bitartean lau tomate uzta ereiten eta lantzen ditu Molik, eta 30.000 eta 40.000 tomate kilo artean batzen ditu.

Zapatuan zabaldu zuten Mintxetako ur parkea



Umeek urarekin jolasteko ur parkea egin du Udalak Mintxetako igerilekuen atzeko aldean, eta zapatutik erabiltzeko moduan dago. Parkea ume eta gazteentzako izango da bereziki, eta uraz baliatzen diren 25 joko irisgarri eta interaktiboz osaturik dago. Guztira, 250 metro koadroko azalera du, eta hiru gunetan bantzen da: lehenengoa umeentzako gunea da, eta uraren formetan oinarrituta dago; bigarrena, aldez, familientzako da, eta hirugarren gunea gazteentzat. Udalak 200.000 eurotik gora erabili ditu parke hau egiteko.



Begirada guztiak San Bartolome kalean jarrita daude ostiralean Kalegoen plazako 4. atariko etxearen atzealdea jausi zenetik

Kalegoen plazako 4. atariaren eraikinaren atzeko aldea behera etorri zen barixakuan, eta ezker hormaren zati handiagoa jausteko arriskua zegoenez, San Bartolome kaleko bost peoretako bizilagunei etxetik irteteko agindu zieten. Bizilagunetako batzuk Lekueder aldera atera zituzten suhiltzaileek leihoetatik, eta Udalak aterpea emango ziela agindu bazien ere, gehienek nahiago izan dute senide eta lagunen etxetan aterpetu. Ordubetere barruan jokatzekoa zen Nahaste Borraste proba ere bertan behera laga zuten, derrigorrean, baina antolatzaileek jakinarazi zuten beste data bat zehaztuko zutela eta jokatu zela aurrerago. Ostiralaz geroztik kalea itxita dago, San Bartolome kaleko bosgarren atari paretik Kalegoen plazaraino, bai eta plaza erdi ere. Zapatuan, zati bat galdu zuen etxea egonkortzeko lanak hasi zituzten, eta hiru zenbakiko ataria habetu egin zuten. Astelehen iluntzean bilera egin zuen Udalak kaltetuekin, ordura arteko lanen berri eman eta hurrengo pausoak zeintzuk izango ziren zehazteko. Bileran argitu zuten gutxienez bi astetan ezingo direla bizilagunak euren etxetara itzuli, eta etxepe horietako negoziak itxita egongo direla. Asteartean, beste ezusteko txiki bat izan zen. Sute txiki bat piztu zen barixakuan jausi zen eraikinean, baina suhiltzaileek berehala itzali zuten. Ezbeharrak eragina izan du Kalegoen Plazan egin ohi diren ekintzetan. Egue-nean, esaterako, ez zen merkadillorik izan Elgoibarren, eta asteburuko aire libreko zine emanaldiak Maalan izango dira, plazan beharrean.

17:20ak aldera

gertatu zen

ezbeharra eta

ondorioz 19:00etan

jokatzekoa zen

Nahaste Borraste


proba bertan

behera utzi zuten

ostiralez gertatu zen, 17:20ak aldera, San Bartolome kalean, herriko kale nagusian, Nahaste Borraste proba herrikoirako lehenengo parte-hartzaileak eta ikusleak plazara inguratzen hasiak zirenean. Gerta zitekeenerako, beraz, ez zen ezer gertatu. Kalte materialak, bai, handiak, baina inork ez zuen minik hartu. "Miraria izan zen", dio Maria Deisy Justinianak, ezbeharraren lekuko zuzenetako batek. 17:18an irten zen etxetik, adinako gizon bat jaso behar zuelako Kalegoen plazan. Amagoia gozotegi parera iritsi zenean, baina, "egur zarata moduko bat" entzun zuen eta segidan "harri-hots ikaragarria". "Hautshodei batek hartu zuen kalea eta pasa-pasa eginda gelditu nintzen, lurrera iltzatuta". Gogoritze hutsarekin larrua lazten zaio oraindik. Pare horretan harapatu zuen ezbeharrak lñaki Arrizabalaga ere. Goar aholkularitzara bidean zihoan Arrizabalaga, ezbeharra gertatu zenean. "Etxe zatiak jausten entzun nituen. Momentu horretan bost-sei lagun zeuden paretaren kontra, sei neska uste dut, eta korrika alde egin zuten, lehenengo zatiak jausten hasteaz batera. Harietan libratu ziren. Hautsak kale osoa estali zuen, eta momen-

tuak ez genekien zenbat jausi zen ere, ezta ondoko orubean langileren bat azpian hartu ote zuen ere". San Bartolome kaleko lehenengo peora zegoen orubea hondakinez bete zen, eta hondeamakina bat ere erdi estalian gelditu zen. "Segituan etorri ziren udaltzainak eta itxi zuten kalea. Ikaragarria izan zen". Emaztea, Judith Loiola, lanean zuen Arrizabalagak, Goar aholkularitzan, San Bartolome kaleko bigarren atarian, jausi zen etxearen parekoan. Ardurata telefonoz deitu zion bulegora Arrizabalagak eta lasaitua hartu zuen telefonoa hartu zionean. "Kalegoen Plazako etxearen horma

oker-okerra ikusten nuen, jausteko arriskuan. Barruan gelditzeko esan nion, oihuka. Eta non ikusten dudan bulegotik irten eta atea giltzaz ixten!". dio. "Gu ez ginen gertatu zenaz jabetu, ez eta geneukan arriskuaz ere, harik eta bulegotik irten eta jende guztia garrasika entzun genuen arte. Zarata entzun genuen, bai, zarata ikaragarria, baina pentsatu genuen obra-hondakinak batzeko edukiontzia ondo lotu gabe izango zutela langileek kamioira eta hura askatuko zitzaizela", zehaztu du gero Loiolak. "Miraria, miraria izan zen", dio Waseem Rashidek, San Bartolome kaleko bosga-



Arg.: Gipuzkoako suhiltzaileak



Jausi zen etxeko teilak banan-banan kendu zituzten langileek zapatuan, egonkortze lanen barruan.

rren atarian dagoen telefonía dendako langileak. Denda atarian zegoen ondoko etxea behera etorri zenean, eta instintuak dendan babestera eraman zuen. Itxita dauka denda, ezinbestean, eta agerikoa du kezka. “Ez dakigu noiz zabaldu ahal izango dugun negozioa”. Ezbeharrak San Bartolome kaleko hirugarren atariari ere eragin dio, eta ostiralaz geroztik ez du dendan sartzetik izan, ezta goiko bizilagunek beren etxeetara ere. Eraikina ikara eginda egon daitekeelakoan, habetu egin zuten zapatuan, egitura egonkortzeko.

Kaltetuak asko dira. Batzuek itxita dituzte euren negozioak eta gutxien-gutxienean hala izan beharko dituzte hamabost bat egunean, horrek dakarren guztiarekin. Batetik, hamabost egunez diru-sarrerarik gabe geldituko dira, eta bestetik, arriskua ikusten dute bezeroek tarte horretan beste denda baterako bidea hartzeko eta bezeroak galtzeko.

Beste asko, San Bartolome kaleko 2-3-4-5 eta 6 atarietakoak, etxetik atera arazi zituzten ostiralean, ezbeharrak gertatzeaz batera, eta senide eta lagunak etxeetan topatu dute aterpea gehienek [Kalegoen plazako bosgarren ataria ere hustu zuten geroago]. Hori-tako bat da Jaime Martinez, San Bartolome 4ko bizilaguna. Frantzia zegoen ezbeharrak gertatu zen unean eta ama, 82 urtekoa, Jai-Alai tabernan, bazkalosteko kafea hartzen. Anaietako baten etxean daude ostiralaz geroztik Jaime eta ama, baina ez luzaroan egoteko baldintzetan. “Lurrean lo egiten dut anaiak ez daukalako beste oherik etxean, eta hau ez da luzerako plana. Hamabost bat egun izango zirela esan ziguten, baina ni obran lan egindakoa naiz eta badakit epe horiek sekula ez direla betetzen. Zerbait zehaztu zain gaude”, adierazi zuen Martinezek

astelehen goizean, Udalak kaltetu guztiak bilera batera deitu aurretik [Astelehen iluntzean egin zuten batzarra udaletxean eta 50 bat lagun elkartu ziren]. Edonola ere, beste batzuen aldean zorionekoa dela dio Martinezek, etxera sartzeko aukera eman zirelako domekan. San Bartolome kaleko 2,4 eta 6 atarietako bizilagunek premia-zko gauzen bila sartzeko aukera izan zuten domekan orduerdiz, udaltzainek zainduta. “San Bartolome kaleko 3. atariko bizilagunen eta dendarien eta Kalegoen Plazako 4koen egoera txarragoa da”, zehaztu du.

“Gaur egon gintezkeen hiletaren batean”

Eta hala da. Xabier Etxeberriak eta Mila Osorok, adibidez, etxea galdu dute. Ez dituzte une gozoak bizi, baina “pozik” daude, gehiago galdu ez dutelako. “Bizitzak beste ez du ezerk balio eta egingo dugu aurrera”, esan du Etxeberriak. Baina ezin du burutik kendu ostiralekoa. “Urte sasoi honetan, normalean, zortzi ume izaten ditugu etxean. Zorionez, baina, nagusiak jai hartzea proposatu zion emazteari lanean, bero handia iragarria zegoelako eta inbiliarian ez zutelako jendetza handirik espero. Hari eskerrak astearte goizean Lekeitioko etxera joan ginen. Atera kontuak bestela zer gerta zitezkeen gurean! Gaur egon gintezkeen hiletaren batean eta ez gaude, eta horregatik, zorionekoak gara. Normalena da ordu horretan umeetako bi plazan egotea futboleko jolasten eta beste bi behintzat telebistari begira egotea egongelan [Egongela osoa, logela nagusia eta sukaldearen zati handi bat jausi dira]”. Kasualitate asko gertatu zirela dio Etxeberriak, denak onerako. Ostiral goizean Lekeitiotik Elgoibarrera etorri zen

Etxeberria, tailerrean baserriko leihotarako burdina batzuk pres-tatzera. Tailerrean jardun zen lanean, eta bazkalostean, siesta egin asmoz, etxerako bidea hartu zuen, lo kuluxka autoan egiteko beroegi zegoela iritzita, baina zubi parean buelta eman zuen atzera, biharamunerako laga beharrean burdinak lehenbailehen soldatzea hobe izango zuela pentsatuta. "Eta eskerrak horri ez nago gaur lurpean, bestela siestan harrapatuko ninduelako ziurrenik eta gure egongela oso-osoan jausi delako".

Moraliki hondoa jota egon arren, zorionekoak direla dio Etxeberriak behin eta berriz. Ez zuen halakorik espero, bistan da, baina harritu ere ez da egin beste asko bezainbat. Ondoko orubean lanean ibili diren denboran zaratak "izugarriak" izan direla nabarmendu du eta hondeamakinak lurra zulatzen eta zimenduak jartzen jardun diren denboran "dardara handiak" igarri dituztela etxean. Zalantzarik ez du: "Ondoa egiten ari diren obrek eragin zuzena izan dute ezbeharrean". Goizero, ogitara irteten zenean, atzeko hormako lanei begiratzen ziela esan du, eta bere baitan bazuela halako kezka bat. "Eta zer esanik ez Milak [emazteak]. 'Hemen ezin da bizi' esaten zidan beldurtuta, eguerdian etxera itzultzen nintzenez. Etxearen aurre alde osoa harlanduzkoa da. Hormak metro erdi baino gehiago dira zabaleran eta hori ez da mugitu ere egin. Atzeko alde, baina, erreko harriz eta lurrez eraikita dago, eta hondeamakinak ibili diren lurra norberak aitzurraz harrotzeko modukoa da. Garai bateko etxeak elkarren ondoan eraikitzen zituzten eta batak besteari eusten zion. Bat ukitzen bada, beraz, normala da besteak eragina izatea, eta hemen ere, San Bartolome 3koa gogortu ezear, batek daki zer gertatuko den". Zapatuan habetu zuten San Bartolome kaleko hirugarren ataria eta hasieran beste zerbait zabaldu bazen ere, Udaletik jakinarazi dute ziurrenik tente eutsi izango diotela etxeari, bota beharrik gabe.

Kaosaren erdian eta egoeraren larriaren aurrean, lasai egoteko ahaleginak egiten ditu Etxeberriak. "Etxea ondo aseguratuta daukagu, eta Eraikinen Ikuskapen Teknikoa iaz pasatu zuen gure eraikinak. Neu tematu nintzelako pasatu genuen hori ere, eta dokumentazio guztia galdu badugu ere, txosten hori behintzat udaletxean entregatuta daukagu. Hori gabe salduta geundeke orain, aseguruak ere horixe eskatu digulako lehenengo momentutik". Hala ere, topatu dituzte lehenengo trabak. "Badakigu errazik ez dugula izango. Lagun Aroekin daukagu aseguru, baina ondoko obra ere Lagun Arok darama eta horregatik peritua aldatu digute. Abokatua hartuko dugu, baina aseguruak esan digu 6.000 euro dauz-kagula horretarako eta hortik gorako gastuak geuk asumitu beharko ditugula. Hemen dena da traba, eta hori gu kaltetu zuzenak garela. Egoera zailagoa izango dute zeharkako kal-tetuek, arriskuagatik gaur oraindik itxita dituzten negozio ja-beek-eta". Egoera zailenetan ere izaten da, baina, argia ematen duenik, eta Etxeberriak eskerrak eman dizkie egunotan babesa eta elkartasuna agertu dieten herritar guztiei. "Ezin sinistuta gaude. Ostiralean alabaren lagun batek gertatu



Suhiltzaileak, barixakuan, San Bartolome kaleko 2 eta 4 pe-oretako jendea etxetik ateratzen Lekueder plazara.

zenaz ohartarazten deitu zigunetik, telefonoa sutan izan dugu. Denak ari zaizkigu deika. Etxeak ere eskaini dizkigute. Izugarria izan da".

Arazoak luze joko duela aurreikusten da. Edizioa itxeko orduan, Aauri, Goar aholkularitza, Smart Movil telefonia mo-bileko denda, Mahats, Ipintza, Arkupe, Iturri eta Jai Alai itxita zeuden. Goarrek Leku Ederreko lokal batetik peorara sarbi-dea duenez, astelehenean sartzen laga zieten langileei, errenta aitortpena entregatzeko azken eguna zelako eta "bai ala bai" egin beharreko lanak zituztelako. Iria arropa denda, berriz, zabalik dago, baina Lekuederretik sartu behar da. San Bartolome kaleko zazpigarren ataritik beherako negoziok, berriz, zabalik daude, baina udaltzainek ohartarazi diete hondakinak kentzen ari diren langileek makinaria astuna sartu beharra baldin badute, itxi egin beharko dituztela.

Kaltetuentzako oharra: Lagun Aro aseguru kontratatuta duten kaltetu batzuek ohartarazi dute San Bartolome kaleko lehenengo atarian eraikitzen ari zen enpresa-etxegi-learen aseguru ere Lagun Aro dela, eta horregatik, ase-guruitik ohartarazi dietela ezin dituztela bi aldeak babestu. Abokatu bat hartzeko gomendatu diete, eta hori dela-eta, kaltetuek dei egin diete euren egoeran egon daitezkeen gainerakoei batu eta abokatua denen artean kontratatzeko. Hortaz, aseguru Lagun Aro daukazuen kaltetuek, deitu telefono honetara: 615 707 137.



► XABI VAZQUEZ MOTOZALEA

Motoa du pasio Xabi Vazquezek, eta motoan izandako istripu baten ondorioz, elbarri dago. 16 urterekin erosi zuen estreinako motoa, eta 23 urte zituela jaso zuen bere bizitza goitik behera aldatuko zuen kolpea. Eguraldi txarra zegoen egun batean gertatu zen ezbeharrak. Mendian zebilen motoan lagunekin, eta haize bolada bortitz baten eraginez, ustelduta zegoen zuhaitz bat erori zitzaion gainera. Denbora luzez egon zen ospitalean, eta errekupeazioa gogorra izan zen. Gehiago ezingo zuela ibili esan zioten medikuek, baina horrek ez zion motorrean ibiltzeko zeukan ilusioa kendu. Ospitaletik irten ordurako hasi zen informazioa biltzen, motoa bere beharretara moldatzeko. Zazpi urte pasatu dira istripua izan zuenetik, eta orain dela gutxi bete du bere ametsa: berriz motorrean ibiltzea.

- AINHOA ANDONEGI -

“Ezin dut hitzekin azaldu motoan ibiltzeak sortzen didan sentsazioa”

◆ Orain dela zazpi urte kolpera aldatu zen zure bizitza. Nola izan zen?

Mendian izan zen. Motorrean ibiltzera irten ginen lagunak, eta zuhaitz bat

erori zitzaidan gainera. Badirudi tximista batek edo jo ziola aurrez, eta erdi ustelduta zegoela. Eguraldi txarra egiten zuen egun hartan, eta haize bolada bortitz

batek zuhaitza bota egin zuen. Denok pasatu ginen handik, baina ni harrapatu nituen. 23 urte nituen. Kolpe gogorra izan zen. Konortea galdu nuen, eta lagunak



“Egin ahal ditudan gauzak egitea gustatzen zait. Beste modu batean egiten ditut, baina nire egoerak ez nau behartu etxean gelditzera”

◆ Noiz jakin zenuen ezingo zenuela berriz ibili?

Ohean nengoela igartzen nuen, eta medikuek esan aurretik banekien zer zeterren. Gogorra izan zen, baina aurrera egin behar nuela pentsatu nuen. Bartzelonako ospitalean egin nuen errehabilitazioa, eta han erakutsi zidaten eguneroko gauzak nola egin behar nituen.

◆ Zure egoeran besteren batek motorra betirako aparkatuko luke, baina zuk berriz motorrean ibili nahi zenuen.

Bai, ospitalean nengoela hasi nintzen informazio bila. Istripua baino lehen motorrean ibiltzea gustatzen zitzaidan, eta ondoren ere bai. Motorra da nire pasioa; hori gustatzen zait, eta nola edo hala, hori lortu nahi nuen. Motorrerako zaletasun honek lagundu dit psikologikoki nire egoerari buelta ematen. Ez nekien lortuko nuen berriz motorrean ibiltzea, baina argi neukan ahalegin guztia egingo nuela hori lortzeko. Asko kostatu zitzaidan motorra prestatzeko informazioa aurkitzea. Oso jende gutxi dago nire egoeran motorrean ibiltzen dena, eta ez dago informazio askorik. Espainian bakarra ezagutzen dut, eta hori behin baino gehiagotan Espainiako txapeladuna izan da motokrosean, eta horregatik, babesleak eta laguntzak ditu motorra bere beharretara egokitzeko. Baina nik ez daukat ezer. Interneten ibili nintzen begira, bati eta besteari galdeetzen, eta azkenean, lagunengandik motorra niretzako egokitzeko lortu dugu.

◆ Zein berezitasun ditu zure motorrak?

Motor normala da, baina egokitzen dituzten batzuk egin dizkiogu. Alboetan burnizko barra batzuk jarri dizkiogu, erortzen baina, babesleak. Bestetik, motorrek frenoak eta kanbioak hanketan edukitzen dituzte,

eta nik eskuekin aldatzeko moduan jarri dizkiot, manillarrean. Hori lortu arte proba pila bat egin behar izan ditugu. Jarlekua ere berezia da, bestela erori egingo nintzatekeelako. Kart baten jarlekua da, eta nire gorputza lotzeko sistema bat jarri diot, bestela erori egingo nintzatekeelako.

◆ Eta nola moldatzen zara motorrean igo eta jaisteko?

Bi lagunengandik irakurri nuen nola nauten, eta motorra arrankatzeko ere laguntza behar izaten dut. Nik bakarrik ezin dut. Motorrean ibiltzeko beti joaten naiz lagunekin. Lagunak furgoneta dauka, eta bertan eramaten dugu motorra, eta beraien laguntza dute. Oso lagun onak ditut, eta eskerrak eman nahi dizkiet.

◆ Non ibiltzen zara motorrean?

Urte asko egon naiz motorrean ibili gabe, asko kostatu zaidalako motorra prestatzea. Orain dela urtebete inguru hasi naiz berriz. Orain ezin naiz mendian ibili, arriskutsua da, mendiko lurra oso irregularra delako. Zirkuituetan ibiltzen naiz bereziki, ondo prestatuta daudelako. Gustatuko litzaidake egunen baten motokross lehiaketaren baten parte hartzea, baina badakit oso zaila dela. Maila handia daukate pilotuek, eta ez nago haiekin lehiatzeko moduan. Ez dago elbarrientzako motokros txapelketarik, beraz, txapelketa nagusian lehiatu beharko nuke, eta fisikoki ez nago maila horretan. Gainera, dirua ere beharko nuke, kirol hau oso garestia da-eta. Ondo egongo litzateke babesleren bat aurkitzea, baina ez da erraza.

◆ Zer sentitu zenuen berriz motorrean ibili zinen lehenengo aldian?

Sekulakoa izan zen. Ezin dut hitzekin azaldu motorrean ibiltzeak sortzen didana. Munduan dagoen onena izan zen momentu hori. Azelerazioa eta abiadura berriz sentitzea izugarria egin zitzaidan, baina lehenengo jauzia egin nuenean sentitu nuena itzela izan zen. Hainbeste lan egin ondoren, berriz motorrean saltokak egitea izugarria da. Esan dezaket lehenengo sentazioak berreskuratzea izan dela, eta oso pozik nago. Uste nuena baino hobeto ikusi nuen nire burua. Nik erakutsi

berehala konturatu ziren ez zela broma. Helikopteroan eraman ninduten ospitalera.

◆ Nolako izan zen errekupeazioa?

Oso-oso gogorra. Hezur-muineko lesio bat daukat, eta horren ondorioz, gerritik behera elbarri nago. Lesioa, gainera, nahiko goian daukat, eta horren eraginez, ez daukat sabelean ere apenas muskulurik. Beste batzuk hezur muineko lesioa izan arren, zutik egoteko ahalmena dute sabeleko muskulazioari esker, baina ni ezin naiz zutik mantendu. Denbora pila bat egin nuen ospitalean. Hilabete inguru koman egon nintzen, eta gero beste bederatzik hilabete ingresatuta. Lehenengo hiru hilabeteak Gurutzetako ospitalean, eta gero, beste sei bat hilabete Bartzelonan. Urte gogorra izan zen, bai niretzat, bai senideentzat eta baita lagunentzat ere.

*“Bizitza bizitza
nahi dut,
ahal dudan gehien
motorrean ibiliz
eta gozatuz”*

nahi dut zerbait gustuko dugunean, posible dela lortzea. Niri motorra gustatzen zait, eta lan handia egin ondoren, lortu dut berriz motorrean ibiltzea.

♦ **Motorrean ibiltzeaz gain, eskiatzera ere joaten zara, eta hegazkinetik ere salto egindakoa zara. Abentura gustuko duzu, ezta?**

Bai, bai gustatzen zait. Bizikletan asko ibiltzen naiz, eta eskiatzera ere joan izan naiz. Kirola egiteak laguntzen dit sasoian eta indartsu egoten, eta hori oso garrantzitsua da nire egoeran. Egin ahal ditudan gauzak egitea gustatzen zait. Beste modu batean egiten ditut, baina nire egoerak ez nau behartu etxean gelditzera. Paratxutarekin salto ere egin nuen Madrilan, eta lur hartu nuen unean nire neskalagunari nirekin ezkontzeko eskatu nion. Baietz esan zuen! Oso polita izan zen.

♦ **Nola aldatu du istripuak zure eguneroko bizimodua?**

Bizitza normala egiten dut, orokorrean. Istripuaren ondoren lana utzi behar izan nuen, hori bai. Lantegi batean egiten nuen lan, makina batean. Zutik egiten nuen lan, eta orain ezin naiz zutik egon, beraz, utzi egin behar izan nuen. Mekanizatua ikasi nuen nik, eta horrek zutik lan egitea eskatzen du, beraz, beste zerbait ikastea pentsatu nuen, nire ikasketekin ezingo nuelako lanik aurkitu. Txakurrak asko gustatzen zaizkit, eta txakurrekin zerbait egitea pentsatu nuen. Txakurrak hezteko titulua atera nuen. Oinarrizko titulua daukat, eta oraindik ez dut txakurrik hezi. Horretarako beste espezializazioen bat behar dut, eta badaukat asmoa zerbait gehiago ikasteko.

♦ **Nola moldatzen zara orain zure eguneroko bizitzan?**

Ondo, denerako autonomia naiz. Emaztearekin batera etxea erosi dugu, eta



biok elkarrekin bizi gara orain. Eguneroko gauza guztiak nire kabuz egiten ditut. Istripuak erakutsi dit egunetik egunera bizi behar dela, etorkizunerako planifikazio handirik gabe, ez dakigulako bihar hemen egongo garen edo ez. Nik bizitza bizitzeko asmoa daukat, ahal dudan gehien motorrean ibiliz eta gozatuz. Etxe-

koei eskerrak eman behar dizkiet egoera guzti honetan ni beste sufritu dutelako, eta uneoro euren babesa eman didatelako, eta baita lagunei ere. Istripua baino lehen beraiekin ibiltzen nintzen motoan, eta orain ere bai. Beti dauzkat inguruan laguntzeko, benetako lagunak dira, eta alde horretatik zorte handia daukat.



Paul Rojo ikaslea

“Neurologian espezializatu nahi dut; buru barruan gauza asko dago deskubritzeko”



Paul Rojo elgoibartarrak 9,74 nota lortu du unibertsitaterako hautaprobak, Gipuzkoako notarik onena eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako bigarren notarik altuena. Urteko lan guztiaren emaitza izan da nota hori, eta ondo baino hobeto ospatu du Maltara egindako ikas-bidaian. Medikuntza ikasketak hasiko ditu irailean Leioan, eta badaki ordu asko eskaini beharko dizkiola ikasteari. Beraz, udaz gozatu nahi du orain, eta ikasketetatik atsedena hartuko du, ikasturte berria indaberrituta hasteko.

◆ **9,74 nota lortu duzu selektibitatean. Espero al zenuen?**

Ez, ez nuen horrenbestekoa espero. Gustura irten nintzen azterketatik, eta pentsatzen nuen nota ona aterako nuela, baina Gipuzkoako nota onena eta Euskadiko bigarren onena lortuko nuenik ez nuen espero. Oso pozik nago, eta etxeok ere bai.

◆ **Hiru egunez egin zenituzten azterketak. Gogorra izan zen?**

Ez zen erraza izan, baina uste nuen gogorragoa izango zela. Batxilergoko azken urtea gogorragoa izan da, egia esan. Ikasturte hasieratik selektibitateko prestatzen gaituzte, lan pila bat egiten ditugu, azterketak ere bai, eta hori egin zait zailagoa. Selektibitatea azken batean ikasturtearen errepasso moduko bat da. Gogorra da, baina astunagoa egingo zitzaidala pentsatzen nuen.

◆ **Selektibitatea kentzeko eskatu dute. Zer iritzi daukazu horri buruz?**

Nik uste dut beharrezkoa dela. Ez nago azterketa zailak jartzearen alde, baina gutxieneko filtro bat beharrezkoa da unibertsitatera joateko.

◆ **Batxilergoan ere ohorezko matrikula lortu duzu. Zein da zure sekretua?**

Konstantzia. Ez ditut gauzak azken momenturako lagatzen, materia guztia egunean eramaten saiatzen naiz. Zerbait berria ematen dugun bakoitzean, saiatzen naiz hasieratik ulertzen eta barneratzen, bukaerara arte laga gabe. Beti izan naiz ikasle fina eta arduratsua.

◆ **Medikuntza ikasi nahi duzu, eta horretarako nota altua behar da. Lortu duzunarekin, ez duzu arazorik izango, ezta?**

Ez dut uste. 9,74 selektibitateko nota izan da, baina ponderazioarekin 13,4 eskuratu dut, 14tik. Medikuntzarako biologiak eta kimikak gehiago balio dute, eta ikasgai horietako emaitzekin ponderatzen dute nota. Medikuntzarako 12,3 eskatzen dute, beraz, sartuko naiz.

◆ **Zer dela-eta aukeratu duzu medikuntza?**

Aspalditik neukan argi medikuntza egin nahi nuela. DBHn nengoela erabaki nuen. Ez dakit nondik dator kidan bokazio hau, baina ez daukat inolako zalantzarik. Etxean badaukagu neurologo bat, eta izan daiteke haren eragina, eta medikuei buruzko telesailak ere asko gustatzen zaizkit, *House*, esaterako. Badakit Medikuntza ikasketak zailak direla eta asko ikasi behar dela, baina kontzientziatuta nago.

◆ **Eta medikuntza barruan, zertan nahiko zenuke trebatu?**

Neurologia. Buru barruan gauza asko dago deskubritzeko. Alor nahiko ezezaguna da oraindik, eta irakurri dudanez, asko dago egiteko. Mundu interesgarria iruditzen zait.

◆ **Beti izan al zara zientzietakoa?**

Selektibitatean nota hobekak lortu ditut letretan, baina bai, zientziak gehiago gustatzen zaizkit. Historian eta gaztelanian atera ditut nota onenak selektibitatean, eta ingelesean eta euskararen ere oso nota altuak lortu ditut. Biologian, matematikan eta kimikan ere emaitza onak atera ditut, baina letretan hobekak.

“Letretan nota hobekak lortu ditut, baina zientziak gehiago gustatzen zaizkit”



Arg.: Jairo Berbel

Estreinako kontzertua emango du gaur Sotano 21 taldeak, Malape tabernan

Malapen emango du Sotano 21 taldeak bere estreinako kontzertua, gaur, 20:30ean. Ezin zuen beste inon izan estreinaldiak: Alberto Verdasco da Sotano 21 taldearen ahotsa, eta lotura handia dauka honek Malape tabernarekin. Extremadurakoa da bera, eta Elgoibarrera iritsi zenean, Malape izan zen ezagutu zuen lehenengo taberna. Harreman oso ona egin zuen hango zerbitzariarekin, eta baita jabeekin ere. "Elgoibarrera iritsi nintzenez nire lehen etxea izan zen Malape", esan du Verdasco. "Sukalderaino sartzen naiz, etxean bezala". Katedrala bezala izendatu dute Malape, eta pozik daude taldekideak gaur gaueko kontzerturako. Maria Azpeleta (gitarra eta pianoa), Jon Ander Pascual (gitarra eta ahotsa), Vicente Santos (baxua) eta David Rodriguez (soinu teknikaria) dira Sotano 21 taldeko musikariak. Orain dela hiru bat urte hasi ziren musika egiten, baina orduan beste abeslari bat zeukaten, eta rap estiloko musika egiten zuten. Proiektu hark ez zuen ibilbide luzerik izan, eta abeslariak taldea utzi zuen. Orain dela bi urte iritsi zen Alberto Verdasco Elgoibarrera. Betidanik izan du kanturako zaletasuna, eta Jon Anderrekin batu zen, abesti batzuk sortzeko. Jon Anderrek ezagutzen zituen Maria, David eta Vicente, eta horrela osatu zuten taldea. Taupada Antzerki taldeak eskatu zien beraien urteurrenean abesti batzuk joteko Maalan, eta hilabeteko epean prestatu zituzten ekitaldi hartarako zenbait abesti. Beraiek gustura jardun zuten, eta ikusleak ere bai. Orduan ikusi zuten musika talde bezala bazutela aurrera egiterik, nahiz eta argi daukaten musika zaletasuna dela beraiantzat eta ez direla musikaz biziko.

Ordubete pasatxoko kontzertua emango dute. Hamar-hamaika abesti prestatu dituzte, eta sorpresaren bat ere egongo dela aurreratatu dute. Maitasunari abesten diote batez ere, baina, oro har, bizitzari buruzko kantuak gustatzen zaizkie. Talde ezagunen abestiak jotzen dituzte gehien bat, baina beraien kanta batzuk ere badituzte. Alberto Verdasco idatzi ditu gehienak, eta bere bizipenetan oinarritzen dira batez ere. Cantabriako kanping batean lan egiten zuten, eta elgoibartar bat ezagutu zuen han. Andoni Intxausti. Gaur egun bere nagusia da, Intxausti enpresan: "Nahi banuen berak bazeukala niretzako lana esan zidan, eta horrela hartu nuen Elgoibarrerako bidea. Bera bezalako jende gehiago egon beharko litzateke munduan. Izugarri ondo portatu da nirekin, eta orain Elgoibarren daukadan guztia, berari esker izan da".

Diskoa

Aurrera begirako asmoen artean disko bat grabatzea aipatu dute. Azken urteetan serio hartu dituzte entseguak, asko hobetu dute bakoitzak berean, eta uste dute egiten dutena jendeari gustatzeko modukoa dela. Jairo Berbel argazkilaria ere laguna dute, eta hura prest azaldu da bideoklip bat grabatzeko ere. Eskerrak eman nahi dizkiote argazkiak ere egin dizkielako. Ez dakite noraino iritsiko diren, ez daukate handinahi askorik ere, musikarekin eta taldean duten lagunarteko giroarekin gozatzen jarraitzea da beraien nahia, musika taldea baino gehiago, lagun taldea direlako.

Naia Membrilleraren lan bat aukeratu dute San Bartolome jaiak iragartzeko

Naia Membrillera Janeirok irabazi du 2019ko San Bartolome jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa, *Herriaren soinua* izeneko lanarekin. Aurten zazpi lan aurkeztu dituzte lehiaketarako. Membrillerak 700 euroko saria jasoko du.

Programaren azala aukeratzeko lehiaketarekin batera, Jaietako Haurren Kartel Lehiaketa ere antolatu du Udalak. Hamabi lan aurkeztu dituzte lehiaketarako, eta honako hauek saritu dituzte: Irati Uzkudun Cabezudo (14 urte), Nahia Baskaran Beristain (11 urte), Elaia Etxaniz Irureta (10 urte), Iñigo Merino Corbillon (9 urte), Ekain Soto Bereziartua (9 urte) eta Leire Etxaniz Bereziartua (7 urte). Sari banaketa abuztuaren 22an egingo dute, 19:30ean, Kultur Etxean.



Kokein taldearen kontzertuarekin hasiko da gaur 'Barixakuak Usuan' egitasmoa



Barixakuak Usuan egitasmoa antolatu du Ander Mujikak uztailako barixakuetarako, eta gaur hasiko da, Eibarko Kokein taldearen kontzertuarekin. Taldea osatzen duten bost kideetatik hiru soilik igoko dira taula gainera, normalean distorsioa eta soinua gogorra ezaugarri dituzten kantuen bertsio akustikoak defendatzera. Kantu batzuk moldatuak izango dira, beste batzuk gordinxeagoak, eta bertsioren bat edo beste ere eskainiko dute. 20:00etan hasiko da saioa. Datozen barixakuetan Joseba Irazoki, MobyDick eta Los Sara Fontan taldeen txanda izango da.

San Fermin Txiki Eguna ospatuko dute astelehenean

Elgoibarko Izarrak eta Udalak elkarlanean antolatuta, San Fermin Txiki Eguna ospatuko dute astelehenean, udako aisia eskaintzaren barruan. Iruñeko sanferminetan egiten den peñen igoera irudikatuko dute. Ludotekan batuko dira peñak 11:00etan, eta pankartak prestatu ostean, peñen jaitsiera egingo dute, Maalaraino. 12:00etan irakurriko dute pregoia Maalan bertan, eta txupinazoa botako dute.

Gurean Bai Kanpainako saridunak ez dira agertu oraindik

Gurean Bai kanpainako zenbaki saritu gehiene jabeak oraindik ez dira agertu: Hauek dira zenbaki irabazleak: 1503, 2761, 6361, 4446, 9870, 5727, 7869, 4848, 8615, 3393, 436, 5187, 4531, 8754, 2825, 7297, 7271, 6131, 8788, 4854, 3422, 5678, 5525, 5116, 3860, 4365, 7458, 1581, 7147, 621.

Hasi dira santanetako danborradetarako entseguak

Santanetako nagusien danborrada uztailaren 25ean izango da, eta aste honetan bertan hasi dituzte entseguak. Hurrengoak ere zehaztu dituzte: Uztailaren 8an, 10ean, 15ean eta 17an izango dira, 21:00etan, Mendaroko frontoian. Umeen danborrada, bestalde, uztailaren 28an izango da. LH1etik LH6ra arteko umeek hartu dezakete parte. Interesatuak uztailaren 15era arteko epea dute izena emateko. Entseguak uztailaren 15ean, 18an eta 22an egingo dituzte, 19:30etik aurrera, frontoian.

Iberdrola Ligako defentsarik onena izendatu dute June Loidi



June Loidi elgoibartarrak zeresana eman du emakumeen eskubaloiko go-reneko mailan egin duen aurreneko urtean, 18 urte besterik ez dituen arren. Espainiako eskubaloiko selekzio nagusiarekin debuta egin eta gero, Iberdrola Ligako defentsarik onena izendatu dute orain, hiru hautagaien artean berak jaso baititu boto gehien. Zaleek aukeratu dituzte Iberdrola Ligako jokalaria onenak euren botoekin. Barakaldoko Hotel Gran Bilbao Prosetecnisa Zuazo taldeko jokalaria da Loidi.



Iñaki Diaz nagusi Javier Ezenarro Oroitzarrean

Limousin Kartoiak taldeko Iñaki Diaz Melerok irabazi zuen Mendaroko Javier Ezenarro Oroitzarrean txirindularitza lasterketa, ekainaren 29an. Gipuzkoako Txapelketako proba izan da aurten Mendarokoa, eta berak jantzi zuen txapela. Esprint gogorrean erabaki zen lasterketa. Bigarren Lizarte taldeko Mikel Retegi Goñi sailkatu zen eta Loiu taldeko Iñigo Colinak egin zuen hirugarren. Mendiko sailkapena Donostiarra taldeko Jon Morillo Trinidadek irabazi zuen eta taldekakoan, Lizarte Ermitagaña izan da talderik onena. Guztira, 85 kilometroko ibilbidea osatu zuen tropelak, Mendaroko Herriko Enparantzatik abiatu Arrasatera osteran egin, lastur igo eta Itziartik bueltan Mendaron bukatzeko.

Hawaiiko ironmana jokatzeko sailkatu da Ibon Gabilondo

Ibon Gabilondo (Elgoibar, 1977) triatloilaria Nizako ironmanean lehiatu zen ekainaren 29an. Sailkapen nagusiko 47. postuan sailkatu zen, eta bere adin tarteko laugarren postuan, bi ordu, 36 minutu eta 36 segundoko denbora eginda. Iragarpen meteorologikoez muturreko beroa iragarri zuten Kosta Urdinean eta antolatzaileek bizikletan eta korrika egin beharreko ibilbideak laburtu zituzten. Ironman probetan 180 kilometro egin dituzte bizikletako zatian eta maratoi batekin (42 kilometro) amaitzen dute. Nizakoan, baina, bizikletan 153 kilometro eta antxitika 30 kilometro egin zituzten. Igerian 3,8 kilometro egin zituzten. Nizan lortutako emaitzari esker, Gabilondok Hawaiiko (AEB) ironmana jokatzeko sailkatzea lortu du, edo beste modu batera esanda, distantziako munduko txapelketan lehiatzekoa. Distantzia luzeko triatloietan diharduten askoren ametsa da Konako irteeran egotea, baina gehienek inoiz ez dute han aritzeko aukerarik izango. Urriaren 13an jokatuko da Hawaiiko ironmanaren 41. ekitaldia.



Uztargi Xake Txapelketak baditu irabazleak

Eneko Egañak irabazi du estraineiko Uztargi Xake Txapelketako liga, eta Arrate Iriondok, Kopa. Mendaroko Xake Eskolak antolatu du txapelketa, Uztargi tabernaren babesarekin, eta antolatzaileak gustura agertu dira estraineiko txapelketa honek izan duen jarraipenarekin. Parte hartzaile guztiei eskerrak eman dizkiete antolatzaileek, bai eta Uztargi tabernako jabeari eta Edu Zubiaurreri ere.



Mayi Mujikak eta Maite Maiorak bosgarren postuak lortu dituzte, Grezian batak eta Italian besteak

Mayi Mujika eta Maite Maiora mendi lasterkariak Europan jokatu diren bi mendi lasterketa entzutetsutan lehiatu ziren joan den asteburuan. Mujikak mendi lasterketetako Munduko Kopako zazpigarren proban hartu zuen parte, Grezian, Olympus Marathon lasterketan. Olinpo mendira igo eta jaitzi ziren 44 kilometroko ibilbidetan. Greziako mendirik garaiena (2.919 m.) izateaz gainera, greziar mitologiako olinpiar jainkoak bizi ziren mendia da Olinpo, inguru berezia. Emakumezkoetan, Elisa Desco italiarra izan zen azkarrena (5:14:18), eta probako errekorra ondu zuen gainera. Munduko txapelkun izandako Ragna Debats (5:15:54) herbereharra sailkatu zen bigarren. Euskal selekzioa ordezkatu zuen Mayi Mujika bosgarren postuan heldu zen helmugara (5:40:59). Eraitza horri esker, SkyMasters lasterketan parte hartzeko sailkatzea lortu du. 2019ko skyrunner onenek hartuko dute parte urriaren 19an Italian jokatu den proban. Maite Maiora, berriz, distantzia luzeko Europako lasterketa entzutetsuenetarikoa den Lavaredo Ultra Trail lasterketan lehiatu zen, Italiako Dolomita mendietan. 120 kilometroko lasterketa da, 5.800 metroko desnibel positiboduna. Emakumezkoetan Kathrin Gotz izan zen azkarrena. Maiora bosgarren helmugaratu zen, 16:29:09ko denbora eginda.



Bergua eta Jurado txapelkun Udaberri Sarian

Lagunak Pilota Eskolako Beñat Juradok eta Alex Berguak osatutako bikoteak irabazi du eskuz binakako Errendimenduko Udaberri Saria, infantil mailan. Elgoibartarrek 18 eta 9 irabazi zieten Goierri taldeko Barberok eta Plazaolak osatutako bikoteari, Legazpiko Urbeltz frontoian jokatuako finalean. Toke erdiko pilotarekin jokatu dituzte partidak 2005 eta 2006. urteetan jaiotako pilotari gazteek.

Derry Darts taldea Espainiako txapelketara

Phoenix Darts makina elektronikoen modalitateko Espainiako dardo Txapelketan hartu zuen parte Elgoibarko Derry Darts taldeak astelehenean, uztailearen 1ean. San Frantzisko kalean dagoen Derry tabernako makinan lehiatu ziren eta bigarren postua eskuratu zuten. Eraitza horri esker, azaroan Galizian jokatu den Espainiako Txapelketako finalerako sailkatzea lortu dute. Honako hauek osatzen dute taldea: Roberto Sanchez, Igor Otamendi, Jurgi Casado, Gorka Panizo eta Gorka Redondo. Derry tabernako Patrick eta Tereri eskerrak eman dizkiete emandako babesagatik.

Sanloren urteko batzar nagusia uztailearen 12an izango da



Festa giroan agurtu zuen Sanlo eskubaloi taldeak 2018-2019 denboraldia.

Sigmako aparkaleku estalian bazkaldu zuten 550 lagunek Sanlo Festan, joan den ekainaren 22an, eta bazkalostean urteko jokalarai aipagarrienei oroigarriak banatu zizkieten. Denboraldia erabat bukatzeko, baina, batzar nagusia egitea falta zaio eskubaloi kirol-taldeari.

Uztailearen 12an, barixakua, izango da, 19:00etan hasita Kultur Etxeko hitzaldi gelan.



LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago.
☎ 632 642 320

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago.
☎ 632 642 320

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai.
☎ 631 667 099

Adinekoak zaintzeko eta nekazaritza lanak egiteko prest nago.
☎ 612 235 371

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.
☎ 633 496 455

Umeak zaintzeko prest nago, goizez. Irailetik aurrera. Esperientzia daukat.
☎ 727 701 716

Arratsalde, orduka, lan egingo nuke. Umeak eta adinekoak zaintzen eta garbiketa lanetan esperientzia daukat.
☎ 654 994 405

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.
☎ 655 366 775

Lan bila nabil. Esperientzia daukat umeak eta adinekoak zaintzen.
☎ 631 656 447

Lan bila nabil. Asteburuetan, orduka edo gauetan ere lan egiteko prest nago. Etxean zein ospitalean. Esperientzia handia pertsona nagusiak eta umeak zaintzen, baita etxeko garbiketa lanetan ere.
☎ 632 893 515

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat eta erreferentzia onak.
☎ 643 323 088

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 632 229 972

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 632 229 972

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 632 229 972

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 631 870 590

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 631 870 590

Adinekoak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 631 398 855

Adinekoak edo gaixoak zainduko nituzke, egunean bi orduz. Euskalduna naiz.
☎ 617 571 210

Etxeak garbitzeko prest nago. Arratsalde. Esperientzia daukat.
☎ 637 102 725

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan.
☎ 611 306 391

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 943 748 899/ 685 724 861

Bikote arduratsua lanerako prest. Baserriko lanetan, edo adinekoak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 602 398 328

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 658 464 396

Adinekoak edo umeak zainduko nituzke, orduka, goizez eta asteburuetan.
☎ 632 992 730

Adinekoak zainduko nituzke. Orduka, gauetz, asteburuetan. Ospitalean ere bai. Esperientzia daukat.
☎ 631 518 917

Eskaintzak

Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar dugu. Goizez, 7:30etik 11:30era.
☎ 658 729 032

Abuztuan, asteleheneetik ostegunera, egunean ordubetez euskaraz hitz egiteko pertsona baten bila nabil. Oinarriko euskaraz maila daukat.
☎ 679 851 125

Langile euskalduna behar da Elgoibarko denda batean lan egiteko. Interesatuak curriculuma bidali mesedez: *buruagaltzen@gmail.com*

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen da San Roke 8an.
☎ 652 716 724

Garaje itxia salgai, lñigez Karkizao kalean. 20m². Gabilondo inbiliarian eskuratu daiteke informazio gehiago.
☎ 943 744 467

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiarri erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.

administradores Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas Entidad No Lucrativa



ROSA Mª PINTADO

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxea erosi berri dut ia oso-osoaan bulegoz betea dagoen eraikin batean. Etxe horretan kokatuko dut nire lantokia. Horretarako, bigarren telefono linea bat jarri berri dut, baina teknikariek esan didate kabletzako hodiak saturatuta daudela, telefono linea bat baino gehiago dituzten bulego bat baino gehiago daudelako. Irtenbide bat badagoela esan didate: hodi berri bat sartzeko obra zibil bat egitea. Jakin nahiko nuke gastu hori neure gain hartu behar ote dudan.

Hasiera batean, zuk ez zenuke instalazio hori ordaindu behar. Telefonía linea bat baino gehiago dituzten bulegoetara ezin diezu kargurik hartu, ziurrenik beharrezkoa dutelako euren lanerako eta beraz eskubidea dutelako.

Telefono lineentzako azpiegitura hori komunitatearena da, eta beraz komunitateari exijí diezaiokazu zuk behar duzun bigarren linea hori sartu ahal izateko behar duzuna. Horren gastua, bai eta hodi berri hori sartzeko obrarena ere, komunitateak hartu beharko luke bere gain. Beraz, komunitate horretako jabeakide guztiek erantzun beharko diote gastu horri, partaide-kuotaren arabera.

ONDORIOA: Eraikineko jabeakide guztiek ordaindu beharko dute obra hori, dagokion partean, baita euren lineekin hodi hori kolapsatzen ari diren horiek ere. Izan ere, beste-lako alternatibak ez lirateke batere justuak inorentzat.

NORFO



Argazkiak eguztien eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Libe!** Asteazkenean 3 urte! Jarraitu beti bezain alai. Patxo asko etxekoan, eta bereziki, Airmarren partez.



Zorionak, **Edur,** 5 urte bete dituzulako. Muxu handi bat, etxekoan partez.



Zorionak, **Nahia,** mailltia! 11 urte etxeko printzesak! Maite zaitugu, bihotza! Jarraitu horrela.



Zorionak, **Mikel eta Jon,** gaur eta igandean 7 eta 10 urte egingo dituzulako. Muxuak etxeko guztion partez.



Zorionak, **Lara,** gaur 5 urte egin dituzulako, eta zorionak, **Danel,** abuztuaren 7an 7 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiako guztion partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
 cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Jon Aranao
 Guillermo Torres
Elgoibar Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 740 704 - 639 067 337
 Asteleheneetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
 Larrietatik: 11:00 - 13:00

Ikasleentzako zerbitzuak
 Deitu ordua hartzeko.

MEKANOSA

Errosario, 27
 Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

IKASBAI AKADEMIA
IKASGO ACADEMY

AURREMatrikula EPEA ZABALIK 2019-2020
667 261 248
 (Leire)

Basarte 13, behea - Elgoibar
 akademiaelgoibar@gmail.com

- INGELES ERREFORTZUA
- CAMBRIDGE AZTERKETAK
- TALDE TXIKIAK
- LH ETA DBH
- GAI GUZTIAK
- EUSKARA ERREFORTZUAK

LAGUNAK
 colchonera textil hogar

Barrualdea bigungarria jartzeko modua artesanala da, eskuz josia.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Comfort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioa
- 5 atsedeen gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Comfort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

5 BARIXAKUA

20:00 Kontzertua: 'Barixakuak Usuan' egitasmoaren barruan, Kokein tadearen kontzertua, Usuan.

20:30 Kontzertua: Sotano 21. Malape tabernan.

21:30 Bideo foruma: *Grandma*. Hai-zeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du saioa. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

8 ASTELEHENA

11:30 San Fermin Txiki, Ludotekatik Maalara, peñen jaietsiera. Atxutxiamaikak eta Ludotekak antolatuta.

12:05 Pregoia eta txupinazoa, Maalan.

11 EGUENA

19:00 Meditazio saioa. Isiltasunaren Eskolak antolatuta, Kultur Etxeko sotoan.

12 BARIXAKUA

22:00 - 02:00 Ultratrail lasterketari ongi-etorria, Azkaraten. Antolatzailea: El-goibarko Ehunmilak Taldea.

Aire libreko zinea (Maalan)

'Campeones'
5 barixakua: 22:30



'Mamma mía'
6 zapatua: 22:30



OHARRA

Udako oporren aurreko azken alea uztailaren 12an argitaratuko dugu. Hurrengo zenbakia abuztuaren 23an jasoko duzue, San Bartolome jaietako berezia.

Ekainean hildakoak

• **Celestina Uranga Etxeberria**

79 urte, ekainak 7

• **Amaia Egiguren Agirregomezkorta**

57 urte, ekainak 11

• **Esther Garcia Corral**

83 urte, ekainak 23

• **Severina Gonzalez Arnaiz**

94 urte, ekainak 30



Benancio Muguruza Lizaso

2019ko uztailaren 3an hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

| GUARDIAK | | | | | | | |
|--------------------------|-------------------------------------|------------------------|----------------------------|-------------------------|----------------------------|---------------------|-------------------------|
| Egunez: 09:00-20:00 | | Iluntzean: 20:00-22:00 | | | Larunbatak: 9:00-14:00 (*) | | |
| 5 BARIKAKUA | 6 ZAPATUA | 7 DOMEKA | 8 ASTELEHENA | 9 MARTITZENA | 10 EGUAZTENA | 11 EGUENA | 12 BARIKAKUA |
| Egunez Barrenetxea | Egunez *Ibañez *Garitaonandia | Egunez *Ibañez | Egunez Garitaonandia | Egunez Etxeberria | Egunez *Oruesagasti | Egunez Yudego | Egunez *Oruesagasti |
| Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean *Ibañez | Iluntzean *Ibañez | Iluntzean Garitaonandia | Iluntzean Etxeberria | Iluntzean Barrenetxea | Iluntzean Yudego | Iluntzean Etxeberria |

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gabez: 22:00-09:00
Zulueta. San Agustin kalea, 5 (Eibar)
943 820 498



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)

635 756 295

629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar

info@funerariaetxeberria.com

www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.




Arrate Aranguren Urkidi

"Berasetá"

2019ko uztailaren 2an hil zen, 72 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Maitasunez, beti gure bihotzean.

Jose Luis Azpillaga



Tik-tak, tik-tak, tik-tak... badao denbora, baina ez beti abiadura berean, ezta? Jakina da denboraren abiadurari buruzko pertzepzioa aldatu egiten dela: zenbat eta gusturago egon, azkarrago doala iruditzen zaigu; aspertuta gaudenean, ordea, moteldu egiten dela dirudi. Denboraren izaera erlatibo hori, gainera, zientifikoki demostratua geratu zen Einsteni esker: Itxura denez -airebentziarekin eta simpleegi azalduta behar bada- oso abiadura handian mugituz gero, denbora dilatatu egiten da, mantsuago pasatzen da. Dena dela, nago gure eguneroko bizitzan alderantziz gertatzen dela: zenbat eta presa handiagoa izan edo azkarrago ibili, arinago doakigu denbora; zenbat eta patxada handiagoz bizi, orduan eta polikiago.

Denboraren joanaren adibide aparta dira Bardeak. Aurtengo Aste Santuan izan nintzen Nafarroako Bardeetan, eta aurrez aurre ikusi ahal izan nuen argazkiko Castildeierra sorgin-ximinitia. Duela milaka urte urpean egondako parajea da Bardeak, eta higaduraren ondorioz sortu ziren orain begi bistan ditugun mendi, arro eta hain bereziak diren sorgin-ximiniak. Dirudenez, gainera harkaitzak (kareharriak edo hareharriak) gogorragoak dira; azpikoak, berri, buziin-lurrak dira eta euriteen ondorioz deseginez joan dira. Denboraren buruan, ordea, sorgin-ximinitia hori jausi eta desagertu egingo da higaduraren eraginez. Denborak egin eta desegin.

Nireak ere egin du Hitz eta Klikean. Badira urte batzuk BARRENEKO atal honetan idazten hasi nintzela, eta hau izango da nire azken testua. Azkar pasatu zaizkit urteok, gustura egon naizen seinale. Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu. Eskerrik asko Iñigo, BARREN eta irakurle guztioi!

“Badira urte batzuk BARRENEKO atal honetan idazten hasi nintzela, eta hau izango da nire azken testua. Azkar pasatu zaizkit urteok, gustura egon naizen seinale”

Iñigo Lamelas



Gremioen gida

ARROZTEGIAK

BICENA, S.L.
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.bicena.eus
info@bicena.eus



Ulazia
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK
Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



MAR
ARROZTEGIA

Olcaso industriegunea, 17 beheak
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485
www.iraolagoitia.com

Aroztegia · Carpinteria

ASIMA

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225
asimaaroztegia@gmail.com

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Umuzuno, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
mendia@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
taller@pagoagasa.com

ELGOIBAR

FONTANERIA

Ibámar
ITURGINTZA

San Roke, 10-A, beheak B
Elgoibar
Floren Oid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

ONGI Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR
Tel.: 943 254 522
Faxa: 943 254 523
ongi@ongielgoibar.com
www.ongielgoibar.com

SANTANA

Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheak
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

Iturgintza

■

Aroztegiak

■

LEIHOAK

LODOSO LEIHOAK

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar
943 741 552
606 431 120
biok@biokdekorazioa.com

IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK

Hércules



658 710 898

Izurrien kontrako
tratamenduak

■

Leihoak

■

Izurrien kontrako
tratamenduak

■

Leihoak

■

ELEKTRIZITATEA

CARRANZA,
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga, 10, 6.B
Elgoibar
karranza@elgoibar.com

Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999



egoluz
ELEKTRIZITATEA S.L.

Raimon: 677 512 462
Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Pedro Migel Umuzuno, 14 beheak
20870 ELGOIBAR

Bulegoa: 943 200 697
ego.luz@hotmail.com

IGELTSERITZA

A. Garate

Era guztietako
igeltseritza lanak
egiten aditua

angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zikia
Elgoibar

610 226 651

Pintura

■

Elektrizitatea

■

Igeltseritza

■

Pintura

■

Elektrizitatea

■

Igeltseritza

■

Euskara ala ezkara mundu digitalean?

ELGOIBAR - URRIAK 5, LARUNBATA - EGUN OSOKOA

JOKIN TRIKITIXA
esnatzeko

ITZIAR DIAZ DE ULZURRUN
euskara sarean

IMANOL EPELDE
baliabide teknologikoak
hezkuntzan

JOSU LANDA
kultura sarean

ANGERIÑE ELORRIAGA
euskara sarean. marka berria

HARKAITZ ZUBIRI
sozializatzen dugu
daukaguna?

GABI DE LA MAZA
txantxangorria kantuan!

INES OSINAGA
LOREA ARGARATE
kontzertu berezia

JOSU WALIÑO
zergatik euskara
mundu digitalean?

LEIRE PALACIOS
ASIER GARAIALDE
GORKA JULIO
XABIER LANDABIDEA
burujabetza digitala:
nola eta zertarako?

MANEX GARAIO
BERTOL ARRIETA
Euskarazko
Kode Poesia

PINTXO-BAZKARIA



Programa zehatza eta bestelakoak irailaren lehen astean plazaratuko ditugu.

Izena eman edota gurekin harremanetan jartzeko:

www.elgoibarkoizarra.eus

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus / 943 741 626 (Imanol)

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



DANOBTGROUP



Barbedeak:

